



Beñat Sarasola Santamaria

8 h · 🌐



"Argiantza", Pello Lizarralde.

Bere nobelen artean onenatarikoa iruditu zait, onena ez bada. Ez da kontu txikia, Lizarralde euskal literaturako 3-4 narratzaile onenen artean baitago.

Askotan entzun dugu Lizarralderen nobelek beti dituztela gutxi-asko antzeko ezaugarriak: bidaian/ihesean doan protagonista, kontakizun-tenpo geldoa, kamera begirada... Egia da, baina era berean, bere obra antzaldatzen eta moldatzen joan da liburuz liburu.

Inoiz esan izan du ez dela fio liburutik liburura aldaketa erradikalak egiten dituzten idazleez, eta baiki, bere aldaketak plaka tektonikoen mugimenduen modukoak dira. Badirudi ez direla mugitzen, eppur si muove, ezarian doaz desplazatzen. "Argiantza"n ondo ikusten da hori gutxienez bi aspektutan.

Alde batetik, espazioa: espazio urbanoak presentzia handixeagoa du bere aurreko nobelekiko, batez ere nobelaren hasieran, gero Lizarraldek hainbeste maite dituen landa-bideetara jotzen baitu. Neurri batean, "E pericoloso sporgersi" (1984) bere lehen nobelara itzulera da, bere urbano-beltzenera. Halere, aldaketa ez da erabatekoa, ez soilik landak ere presentzia handia duelako, baizik eta bere aurreko nobela, "Elur bustia" (2016) hiri batean (Iruñea?) amaitzen zelako.

Bestetik, narratzailea. Memoriak huts egiten ez badit, "Orbanak"en (2012) erabili zuen lehendabizikoz lehen pertsona (modu jarraituan). Orain berriz darabil, baina bi bloketan: (a) protagonistaren egunkari modura, eta (b) beste pertsonaia batzuen ahotik (multiplikatura, beraz). Lehen pertsona horiekin, gainera, inoizko introspektzio handienak egiten ditu, eta hala, bere ohiko kamera kontamoldetik urruntzen da. Bereziki esanguratsua da (b) lehen pertsona, zeina nobelaren hasieran nahiko kanpo-begiradakoa den, baina gerora, geroz eta introspektiboagoa

Bidenabar, @InigoRoquek Twitterren aipatu bezala, izerdi mordoa dago nobelan. Istorioa irailean dago kokatuta eta zati handi batean (ez osoki) Nafarroa diruditen lekuetan. Giro horrek "Sargori" (1994) gogorarazten digu. Horregatik, bere aurreko lanetako hari asko bilbatzen dira hemen

Lizarralderen liburuetan ia beti daude hitz klabe modukoak, sarri errepikatzen direnak kontakizunean zehar. Kasu honetan, alde batetik, "argiantza", uste dut behin erabiltzen dena (zinema areto ilun batean sartzean), baina ze hitz egokiago zinemari omenaldia den nobela baterako. Baina beste hitz klabe bat "margul" da, maiz azaltzen zaiguna. Azken batean, mundu margul (eta galdu) bat irudikatzen baitu "Argiantza"n, HDzko irudietan bainoago 35mm-tan ikusten genueneko mundu bat.